

JUAN PABLO II AITA SANTUAREKIN

Aramaio, 1982-XII-18

J. M. Satrustegi

Azaroaren hiruan Juan Pablo II Aita Santuak Españaiko Unibersitate, Erret Akademia, Ikertzaile eta Pentsalariei egindako deiari erantzunez, Madrilen izan zen Euskaltzaindia. Complutense Unibersitateko areto nagusian egin zen bilera, eta sarre-
ra mugatua zenez, Euskaltzainburugoko lau lagunok joan ginen, Hegoaldeko lau herrialdeen izenean: L. Villasante, Euskaltzainburua; J. M. Satrustegi, idazkari eta Nafarroako ordezkaria; E. Knörr, diruzain eta Arabako ordezkaria eta J. San Martin, Jagon sailburu eta Gipuzkoako eragilea.

Sondikako aireportuan arratsaldeko zortzi t'erdietan hegazkina harturik, bezpe-
ratik joan ginen Madrilerara, eta han gaua eginik goizeko zortzietan hurbildu behar
genuen Unibersitateko ate aurrera. Ordurako, bazter guzitatik etorritako ikaslez
betetzen hasia zen etxe aurrea eta, itxuraz, batzuk han bertan lo egin izan behar zuten.

Batzargela nagusia bete-beterik zegoen hamar t'erdietan Aita Santua sartzean.
Harrera ona izan zuen. Batzartu guziek zutik eta txalo luzeekin eman zioten ongieto-
rria.

Kantariak "Veni Creator Spiritus" abestu ondorean, Urbano Valero Agundez
Comillasko erretorea aurkezlarri, hasi ziren hitzaldiak. Francisco Bustelo Garcia del
Real, bilduak ginen Unibersitateko erretore ospetsuak EGIN zion lehen agurra.

Federico Mayor Zaragoza, Hezkuntza eta Unibersitateetako Ministeritzaren
buru zenak hartu zuen gero hitza, txosten luze eta esamodu borobilekin gertakizuna-
ren garrantzia azpimarratuz. Unibersitatearen izenean domina emanik eta ohorezko
izendapena agiri baten bidez eskaini ondorean, elkarte bakoitzak bere opariak aur-
keztu zizkion Aita Santuari. Euskaltzaindiak liburua batzatu utzi zizkion, L. Villasantek,
latinez egindako eskaintzarekin.

Juan Pabloren hitzaldia zen bileraren ardatza eta isilune osoz entzun zitzaion.
Behin baino gehiagotan txaloka hartu ziren bere esanak. Españaik historian zehar
eman dituen gizon ospetsuak aipatu zituen lehenik; elizari eman dizkion santu eta
Lagundi ospetsuen aitak gogoratu zituen gero; Avilako Teresa eta Gurutzeko Juan,
bereziki errepikatuz. Irakaskuntza eta ikerketa askatasun osoarekin egin behar direla
esan zuen, benetan gizartearentzat mesedegarri izatekotan. Egia izan behar duela
jakintsuen helburu nagusia eta, bide horretatik, jakintza eta sinesmena elkartzerara dei-
tuak direla.

Batzargela nagusiko egitaraua amaitu zenean, Unibersitateko ate aurrean bildu ziren ikasleei mintzatu zitzairen berriz. Complutense-ko irteeratik helikopteroak zeuden zelairako bidea oinez egin zuen ondoratu zitzaion jendetzaren erditik.

Erdal Akademiako zenbait lagun agurtu genuen, hala nola irakasle ezagun asko. Gure ustez, Euskaltzaindiak han egon behar zuen ez gomita ofizialki hartu zuelakotz bakarrik, elkargo mailan dagokion nortasunagatik baizik.